

Elkarrizketa Euskararen zuzendari nagusi Estibaliz Alkortari

Estibaliz Alkorta Barragan Euskararen Normalkuntzarako zuzendari nagusia da Foru Aldundian. Lasartearra da, eta agintaldi honetan hartu berria du kargua. Laster Foru Aldundiaren laugarren hizkuntza plangintzaldia onartuko dela eta, harekin solasean aritu da Ogasuneko Langile Euskaldunon Taldea.

Galdera. Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburuetako bat administrazio elebidun bat izatea da. Zer esan nahi du horrek hemen eta orain?

Erantzuna. Batez ere herritarren hizkuntz eskubideak bermatzea, bai ahozko harremanetan eta bai idatzizko harremanetan. Horixe izango da legealdi honetako erronka. Herritarrekiko ahozko harremanak nahiko bermatuta daude; ez hainbeste, ordea, idatzizko harremanak: itzulpena asko jotzen baita. Oso portzentaje handietan, gaztelaniaz sortzen da eta gero euskarara itzultzen da. Eta horri buelta eman behar zaiola uste dugu, eta plangintza berrian helburu nagusietako bat izango da.

G. Batzuetan zerbitzu batean langile gehienak elebidunak izan arren euskara ez da haien arteko harreman hizkuntza. Zergatik gertatzen da hori, zure ustez?

E. Hor ere nik bereziko nuke ahozko harremanen eta idatzizko harremanen artean. Ahozko harremanetan, arrazoa ohitura da. Askotan, pertsonarekin identifikatuta baita: hasieran norbaitek hitz egiteko hizkuntza gaztelania bada, oso zaila egiten da euskarara aldatzea. Arrazoa lehendik hartutako ohitura da.

Idatzizko harremanetan, euskaraz jakin bai, baina lanean euskaraz ez jarduteko arrazoa beldurra edota zalantza dela esango nuke: "ez naiz gauza izango euskaraz egiteko".

Hor daude arrazoi nagusiak. Horietan eragin beharko genuke. Langileen motibazioan eta prestakuntzan. Segurtasuna eman behar diegu, euskaraz jardutera iritsi daitezkeelako.

G. Uste al duzu erabilera plan batek jendearen harreman arruntetan eragin dezakeela, hau da, euskara lanean gero eta gehiago erabiltzen bada, pertsonen arteko harreman hizkuntza maizago izango dela?

E. Nik uste dut baietz. Hor berezi beharko litzateke langileen jarduera mota. Langile askoren ohiko jarduera, seguruenik, ahozko harremana izango da. Erabilera planek gehiago eragiten diote idatzizko harremanari. Erabilera planetan sartuta dauden langileek horren ondorioa izan beharko lukete, euskaraz eta gaztelaniaz lasai jardun ahal izateko.

G. Bost urtean behin onartzen du hizkuntza plangintzaldia Aldundiak. Dirudienez, laster onartuko da laugarrena. Zer zutabe izango ditu plangintza berriak?

E. Lehen eta bigarren plangintzaldian, helburuak langileen ezagutzari lotuta zauden. Hirugarren plangintzaldian, ordea, euskararen ezagutzatik lan hizkuntza izatera pasatzea sartu zen. Lehen pausoak hirugarren plangintzaldian eman ziren. Datorren laugarren plangintzaldian, ezagutzak garrantzia izaten jarraituko badu ere, erabilera izango da **erronka nagusia**. Euskaraz lanerako [hizkuntza] normala bilakatu nahi da eta herritarren hizkuntz eskubideak bermatu. Dena lotuta egongo da. Beraz, langile gehiago sartuko dira erabilera planetan; inoiz baino gehiago. Eta metodologian eta langileen motibazioan eragingo da, batez ere beren idatzizko harremanetan eta beren lanean euskaraz egin ahal izateko. Aurrerapauso handiagoak emango dira euskara lan hizkuntza bilakatzeko.

G. Inoiz entzuten da Aldundian langileei atzerriko hizkuntza ikasteko laguntza eman zaiela nahiz eta garai batean euskara ikasi ez. Euskara lanposturako tresna ere bada, ez al da kontraesana?

E. Ez dakit benetan horrelako kasuak zenbat diren Gipuzkoako Foru Aldundian. Hori horrela bada, kontraesan handia da, guretzat ere. Halere, ez dut ikusten atzerriko hizkuntzen ikasketa bateraezina denik euskaraz ikastearekin. Hori areagotuko balitz, gaia seriotasun handiagorekin hitz egin beharko litzateke Lehendakaritza Departamentuarekin, kontraesanean ez erortzeko.

G. Erabilera plan baten helburu nagusia da hizkuntza ofizialen erabilera aktibatzea. Aldundian zenbat langile eta arduradun ari da benetan euskaraz lanean?

E. Hori erantzuten zaila da. Badakigu zenbat langile dauden sartuta erabilera planetan (740 langile). Horietatik zenbatek egiten duen bere lana euskaraz? Oso zaila da hori neurtzen, ez baitago indize bat. Badakigu gutxi direla oraindik. Gure itzulpen atalean gehienbat gaztelaniatik euskararako itzulpenak egiten dira. Hori indize bat izan daiteke. Ez dakigu zenbatek egiten duen lana euskara hutsean. Ez baitira horiek pasatzen Itzulpen Ataletik. Indize batzuk onartu beharko genituzke erabilera neurtzeko, hala ere, gutxi direla badakigu beren lana euskaraz egiten dutenak. Zaila da neurtzen. Baina ebaluazio bat egin beharko genuke urtero.

G. Eta horiei buruz, zer aurreikuspen egina duzue agintaldi honetarako?

E. Aurreikuspena da ahalik eta langile gehien sartzea (erabilera planetan). Lehenengo lehenetasunak atalka jarriak ziren (jendaurreko atalak...). Baina orain ez da ataletan oinarrituko, baizik eta beren ezagutzan. **Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langile guztiek sartuko dira erabilera planetan.** Gero dagokiena (hizkuntza eskakizuna) baino bat gutxiago (egiaztatuta) dutenei gonbitea egingo zaie erabilera plan batean sartzeko. Hor dago lotura erabateko gaitasunaren eta erabileraren artean. Ez da logikoa 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna duten langileek (euskara) ez erabiltzea. Horretarako, 2. hizkuntza eskakizuna eskatuko nieke. Baina 3. eta 4. hizkuntza eskakizuna baduzu, horrek esan nahi du gaitasuna duzula; eta, beraz, hurrengo pausoa dela (euskara) erabiltzea. Laugarren plangintzaldia ekainaren bukaeran onartzeko asmoa daukagu. Beste berrikuntza batzuk ere izango dira, baina nahiago dut ez aurreratzea.

G. Jendaurreko lanpostuen alorra sartuko al da laugarren plangintzaldian?

E. Hori gainera, bereziki [sartuko da laugarren plangintzaldian]. Ikusi baitugu lehen urratsa haxe izan beharko litzatekeela. Hala ere, Zailtasunak ditugu identifikatzeko zeintzuk diren jendaurreko postuak. Ia denek leihatilarekin identifikatzen dituzte, baina ez da hala. Ez dira horiek bakarrik. identifikatze horretan elkarlanean ari gara Lehendakaritza Departamentuarekin. Lantalde bat sortu nahi dugu Lehendakaritzako eta Euskara Zuzendaritzako teknikarien artean. **Jendaurreko lanpostuen mapa** sortu nahi dugu. Horren arabera, neurri zuzentzaileak eta prebentiboak hartu nahi ditugu.

G. Aldundiaren zenbait harrera gunetan, batzuetan "erdaraz, mesedez" entzun behar izaten dute herritar euskaldunek oraindik eta, horren ondorioz, hizkuntza aldatzen dute. Zure zuzendaritzak zer proposatzen du arazo horri aurre egiteko?

E. Lehen momentutik argi eta garbi ikusi genuen horri aurre egin beharra. Ikusi genuen Funtzio Publikoarekin harremana sendotu behar genuela. Hilean behin ditugun bileretan aztertzen ditugu gaietako bat horixe da: jendaurreko lanpostuen eta herritarrekiko harremanak. Lehen esan dudan bezala, ari gara dagoeneko jendaurreko lanpostuen mapa hori osatzen, aurretik zer den jendaurreko postua definitu behar badugu ere. Helburua da zuk aipatu duzun arazo horri aurre egitea.